

«Goazen bi aldeetatik elkar ezagutzak modernizatzer eta eguneratzer, konplexutasunak onartuz»

Gora Herriak. Euskal Herria-Argentina” jardunaldia, Bixi Bixi Elkarrekin Pasaiko Udalaren babesarekin antolatua, maiatzaren 30ean hasi eta ekainaren 15ean bukatu zen. Inaugurazioko hitzaldian, Oscar Alvarezek euskaldunek Argentinan zer egin zuten eta nola integratu ziren kontatu zuen. Eta Buenos Airesetik bideodeiz, Julieta Gaztañagak euskaldunak zein argentinarrak animatu zituen elkarren arteko lotura modernoago bat sortzera.

Nahi zenuke Euskal Herrian egon.

Ahal dudan guztietan joaten naiz, baina dakizuen bezala krisi ekonomiko handi batean gaude eta bizitza zaila bilakatu da enplegua dugunontzat; imajinatu, enplegua ez dutenontzat. Planifikatutako krisiek hori eragiten dute. Ez dut ezkorra izan nahi, herrialde hau egoera askoz ere zailagoetatik atera delako, baina amorrua eta haserre sortzen dit jendea engainatzea hain erraza izateak. Ultraeskuinaren manipulazioak hori sortzen du: alde batetik, porrot sententzia eta, bestetik, fede bat, gero hobeto egoteko beti sakrifizioak egin beharraren ingurukoa. Ez da hobeto egoteko, ordea, herrialdea sunsitzeko da. Operazio hori desmuntatzea da gure erronka. Ez gara bakarrik, beste herrialde batzuetan ere gertatzen ari da.

Bai, eta alde horretatik Euskal Herria oasi bat da.

Erabat. Oinarria, komunitatea, lurralde politika, oso-oso inportantea izan da. Argentina zentralistagoa da, eta nik uste

dut azken urteetako akats politikoa dela tokiko lurralde militantzia garatzen ez uztea. Ultraeskuinaren aurrerapen honekin ordaintzen ari gara.

Ilusioa egin zizun Pasai Donibaneko gonbidapenak, krisiaz gain, bertze mota bateko harremanak eraikitze.

Festa bat izatea ederra izan da. Ospakizuna berreskuratzea. Alde horretatik motibatu egin ninduen. Oso erlazio aktuala dago krisiarekin eta herrialdearen egoerarekin, baina ez da bakarra. Gustatu zitzaidan hirugarren puntua aktualitateaz aritzeko deitu izana da. Normalki diaspora historialariek lantzen dute, eta zentzua du, iragana delako. Gaur egun ez dugu migratzailerik jasotzen Euskal Herritik, Erasmseseko trukeak hartzen ditugu, enpresariren bat, BBVA ere bai! Nik egungo diasporarekin egiten dut lan, eta hori nahi zutela esan zidatenean, poz handia hartu nuen: azkenean!.

Gaur egun, Itziar Ituñoren jarraitzaileak joaten dira euskal etxera.

[Irri egin du] Euskal etxea baino gehiago euskaltegia da Buenos Airesekoa. Iruditzen zait herrialdeko euskaltegi bakarra dela. EGA dute askok. Bixia da. argentinarrak izanda, titulu hori lortzea.

Zein motibazio dituzte euskara ikasteko? Zu zergatik animatu zinen?

Profil ezberdinak daude. Ituñoren jarraitzaileena gutxiengoa da. Punk musika edota euskal rock erradikala ulertzeko ikasten duten argentinarren multzoa bezala. Normalki arbaso euskaldunak izateak eramaten ditu argentinarrak euskara ikaste-

ra. Aitona-amonek hitz egiten zuten, eta gero galdu egin zen euskara. Lotura mantendu duten pertsona horietako askok bidaiatu egiten dute, joan-etorrian ibiltzen dira eta senideekin mintzatu nahi dute euskaraz. Gero, bada beste profil bat, hizkuntzen maitaleena.

Argentinako euskal diaspora zenbat pertsonak osatzen dute gutxi gorabehera?

Zaila da kalkulatzeko. Batzuek milioi bat direla diote. Baina Argentinako biztanleriaren %10ek euskal abizenen bat dute. 40 milioi biztanle gara; hortaz, lau milioi lirake. Bizifren artean tarte handia dago. Ikerketa genetikoari dagokionez, euskal etxetara jotzen da RH negatiboko odol bila, jakina delako odol mota horretako jende aunitz dagoe. Purutasunarena tontakeria bat iruditzen bazait ere, datu interesgarria da badela jakintza amankomun bat euskaldunek Argentinan izan duten garrantziari buruz.

Argentinako euskal diasporak ongi ezagutzen du Euskal Herriko aktualitatea.

Izugarri. Interes handia dute, sare sozialetako taldeetan daude, bidaiatu nahi dute, egunkariak irakurtzen dituzte, ETB ikusi, musika eta podcastak entzun... Gero eta gehiago, teknologia berriekin. Jakin nahi dute zer ari den gertatzen, zer entzuten den, euskal trapa entzuten dute Mikel Laboaz gain.

Lehen ere ibilia zara Euskal Herrian hitzaldiak ematen eta horietako batean zenioen ez dagoela euskal identitate bakarra Argentinan, euskal identitateak baizik. Baserri, herri kirol eta arin-arinare-

JULIETA GAZTAÑAGA

BUENOS AIRESEKO ANTROPOLOGOA

Argentinako euskal diaspora ikertzen du Gaztañagak, baina ez ikuspegi historikotik, aktualitateari loturik baizik. Horri buruzko hitzaldia eman zuen berriki Pasai Donibanen, ‘Gora Herriak. Euskal Herria-Argentina’ jardunaldiaren ildotik.

DATUAK Julieta Gaztañaga (Bahia Blanca, Argentina, 1977) ikertzailea, doktorea eta Buenos Aireseko **Unibertsitateko irakaslea** da duela 20 urtetik baino gehiagotatik. Euskal sustraiak ditu. Euskal Herriaren gaur egungo egoera politikoa ikertzen du, bereziki **independentismoa**, baita Argentinako euskal **diaspora** ere, **aktualitateari loturik**. Aunitz gustatzen zaio **pintura**, sinesten du arteak mundua alda dezakeela, eta iruditzen zaio lotura estuagoa izan beharko luketela akademiak eta arteak.

kin lotutako estereotipo bat dago Euskal Herritik kanpo-ko euskaldunetz pentsatzen dugunean.

Bai. Eta ez dut esan nahi hori gertatzen ez denik, gertatzen baita. Gehien ikusten dena alderdi folkloriko hori da, baina bada Euskal Herriarekin lotura duen jende asko, euskaldun sentitzen dena, eta euskal etxean aktiboa ez dena eta dantzaria ere ez dena. Hala ere, euskal kultur forma ezberdinekiko interesa eta maitasuna hor dago. Nire etxean beti egon izan da zahato bat, aitonarena zena. Etxe gehienetan daude hainbat elementu alda-re moduan. Jende horren artean batzuek iraganako begirada dute eta beste batzuek ez, beren helburua bidaiatzea da, eta Bilbora joaten dira, kontzertuetara, euskal selekzioa ikustera... Beste mundu bat dago hor. Euskal diaspora oso konplexua eta askotarikoa da, eta hori ederra da. Horregatik diot euskal identitateak dau dela, eta ez identitate bakarra. Feminismoak ere zubi lana egin du: hemen, Argentinan, feministok badakigu zer garrantzi duen feminismoak, behintzat ezker abertzalean edo Euskal Herriko sektore batzuetan. Baditut lagunak sindikatuetan dabiltzanak eta LAB eta ELA ezagutzen dituzte, arrazoi ezberdinengatik. Euskal ezkerra oso soziala da. Euskal kooperatibismoa ere oso ezaguna da hemen. Bidegurutze interesgarri ugari dago gaur egun.

Euskal independentismoa ikertzen ari zara.

Begirada antropologiko bate-tik, jakin nahi dut auzi hain gogorrean, ondorio latzak utzi dituenean, familiak eta gizar-tea banandu dituenean, nola



Argazkiak: Lucia GAZTAÑAGA - Jon URBE | FOKU



egon daitekeen hain bizirik motibazio hori eta zer bilakatzten den gatazka armatua amaitu eta gero. Nire hasierako galdera honako hau zen: abertzaletasun berririk dago gatazka armatua bukatu ondoren? Zein dago prest militantzia sozial bat egiteko gai hauengatik? Batez ere, mugimendu sozialak interesatzen zitzaizkidan. Horregatik, nire lehendabiziko lekua Gure Esku Dago izan zen, 2015ean. Gure Esku Dagoko jendeak Argentinara bidaiatzen zuen eta interesgarria zen. Bada abertzaletasun berririk? Baldin badago, nolakoa da? Nola praktikatzen da gaur egun interes eta sentimendu independentista hori gatazka armatuaren amaieraren testuinguru ezberdin honetan, hain estigmatizatua den eta modu berrietan estigmatizatzen jarraitzen den gai batean? Erronka interesgarria da, historia bat dagoelako kon-

tatzeko, behintzat Argentinan: zergatik independizatu nahi dute euskaldunek? Zergatik dago ezkerreko independentismo bat? Argentinan separatismoa eskuinarekin lotzen da. Oraindik ere jende aunitzek ez daki euskal independentistak ezkerrekoak direla. Akademikoek ere ez dakite. Progresismoa eta independentismoa konektatzea, akademiko bezala, niretzat lan hagitz konplexua da. Gatazka armatua traumatikoa izan da, eta hortik askatu behar da.

Zein fasetan dago zure ikerketa hori?

Artikuluak argitaratzen ari naiz, eta etengabe izenburua aldatzen diodan liburu bat idazten. Argentinan, doktore tesia egiteko, urte luzez landu nuen lan politikoaren nozioa. Euskaldunen modua nolakoa den aurkitu nahi dut, zein forma duen Euskal Herrian lan

«Oinarria, komunitatea, lurralde politika, oso-oso inportantea da Euskal Herrian. Argentina zentralistagoa da, eta nik uste dut azken urteetako akats politikoa dela tokiko lurralde militantzia garatzen ez uztea»

horrek. Gure Esku Dagotik abiatu naiz. Hernani Burujabe ere interesatzen zait, tokiko autonomia eraikitzeko modu hori. Nazio maila eta udal maila uztartzea oso aberatsa iruditzen zait.

Hori guztia, Argentinako kanpoko begirada berezitik.

Ikuspuntu antropologikotik beti da ona kanpo begirada bat izatea, harritzea ahalbide-tzen duelako. Bertakoentzat jakina dena niretzat ez da, eta horrek laguntzen ahal dit galdera hobeak egiten. Argentinako federalismoarekin lotutako gaiak argitaratzen ere jarraitzen dut. Hainbat gairekin nabil, beti antropologia politikoaren eta balore nazional eta politikoaren jiran. Kasu enpirikoak azaltzen dira, kon-tatzeko interesgarriak. Adibidez, oraindik argitaratzeko dagoen azken artikulua, ingelesez idatzi dudana, An-

doainen bizi den familia baten ingurukoa da. Ezohiko migrazioa da haiena: 1970eko hamarkadan bidaiatu zuten Argentinara, diktadura betean. Migrazio ekonomikoa izan zen, langile klasea ziren eta bizi baldintzak hobetzera joan ziren. Ez zuten Argentina asko ezagutzen eta diktaduran zegoen herrialde bat aurkitu zuten. Oso gogorra izan zen, eta itzuli egin ziren. Ez zen diru askorekin bueltatzen ziren indianoen migrazio arrakastua izan; guztiz kontrakoa. Aitak euskaraz bakarrik egiten zuen, eta beharrarekin ikasi zuen gaztelania Argentinan. Gaur egun, euskara da bere hizkuntza, baina gaztelaniaz egiten duenean argentinarrak bategi bezala egiten du.

Zure birraitona ere andoaindarra zen, ezta?

Bai. Eta birramona, berastegiarra. Beraiek kontaktu guztia galdu zuten Euskal Herriarekin. Baserritarrak ziren eta Argentinara etorri ziren. Familia eraikia zuten ordurako. Modu batera edo bestera, beti jarraitu zuten landari lotuta. Nire aita ere ingeniari agronomoa zen. Euskara mantendu zuten nire aitonarengana iritsi arte. Nire aitonak gaizki hitz egiten zuen, baina zerbait bazekien. Ez zuten Euskal Herriaz hitz egiten. Nik uste dut min handia egiten ziela. Inoiz ez ziren itzuli. Txiste, hitz eta abestiak mantendu arren, bizi esperientzia hori utzi egin zuten. Isiltasunean hazi nintzen. Agian, horregatik hasi nintzen euskara ikasten, isiltasun hori puskatzeko.

Beti jakin zenuen euskal arbasoak zenituela?

Bai, hori beti egon da oso presente. Italiako pasaportea dut,

amaren familiaren alde bat bertakoa delako. Horiek ez zuten harrotasunik italiarrak izateagatik. Aitaren aldeko familia euskalduna da eta horiek bazuten harrotasuna. Horrekin hazi nintzen. Alde batetik, isiltasuna, baina identitatea oso markatua, bestalde.

Nolakoa izan da sustraiak berreskuratzeko bidea?

Pixka bat tristea izan zen, aitari agindu niolako, eta bere sustraiak ezagutzera eraman nahi nuelako. Nire aitonak ez zuen ezer kontatzen, eta aitak informazio oso zatitua ematen zidan, eta datu oker batzuk ere bai. Artxibo batzuetara joan nintzen, baina bigarren abizenik eta izen osorik gabe, ez zen erraza. Gaztañaga asko daude. Orain badakit bigarren abizena Alduntzin dela, baina orduan ez nekien. Aita pandemian gaixotu eta 2020an hil zen. 2021ean artxibo zehatz batera iristea lortu eta zuhaitz osoa eraiki nuen 1600. urtera arte. Ahizpa eta anaiek pozez negar egin zuten, baina aitak inoiz ez zuen jakin. Ezin izan nuen Euskal Herrira eraman ere. Oso pozik jarriko zen. Ederra izan zen informazio hori aurkitzea.

Lehenago ere izana zinen Euskal Herrian.

2006an egin nuen bidaia txiki bat eta 2017an denbora luzeagorako joan nintzen, ikertzerara, Argentinako Gobernuaren beka batekin. Gero, 2021ean eta 2022an itzuli nintzen.

Andoain eta Berastegi bisitatuko zenituen.

Bai! Eta Andoaingo elizatik pasatzean pentsatzen nuen “agian, hemen ezkonduko ziren nire birramona eta birraitona”, ezkonduak iritsi baitzi-

ren Argentinara. Oso hunkigarria izan zen. Lagunak nituen Andoainen, jakin gabe nire familia handik zetorrela. Herria maite nuen lagunengatik, eta orain are gehiago.

Pasai Donibaneko hitzaldian zein mezu eman nahi izan zenien entzuleei?

Anima gaitezen elkar hobeto ezagutzera. Independentismoa aipatu dugu, baina hori atal bat da. Peronismoak begirada arrunt partziala du Euskal Herriaz, faktore askorengatik, eta ulertzen ditut, Francok Peronekin izandako harremanarekin du zerikusia. Maila politikoan elkarrenganako informazio falta handia dago, nahiz eta beste alde batzuetatik ezagutza handia dagoen. Pena ematen dit elkar sakon

«Argentinan separatismoa eskuinarekin lotzen da. Progresismoa eta independentismoa konektatzea, akademiko bezala, niretzat lan hagitz konplexua da. Gatazka armatua traumatikoa izan da, eta hortik askatu behar da»

ez ezagutzeak, Argentinako militantziak militantzia peronista barne hartzen duelako sektore batzuetan. Peronismoa erraldoia da, ultraezkerretik ultraeskuinera, baina badaude parekotasun batzuk Euskal Herriko ezker abertzalearekin: komunitatearen oinarria, auzolana... Ia lortzen dudana nire liburuan hori dena kontatzea! Mezua honako hau litzateke: goazen bi aldeetatik elkar ezagutzak modernizatzerara eta eguneratzera. Anima gaitezen gaur ezagutzera, daudden konplexutasunak onartuz. Izan ere, noski, zerbait gehiago ezagutzen hasten zarenean, denetarik aurkitzen baituzu: gauza batzuk oso atsegin dituzu, eta beste batzuk, ez. Maitasunak bizirik segitzen du, hala ere. Argentinan

Euskal Herriaz dagoen begirada erromantiko samarra da: perfektua da, baina jendea hara doa bizitzera eta jada ez da hain perfektua. Baina maitasuna egon badago. Nik uste dut gauza bera gertatzen dela Argentinara datorren jendearekin. Ez daitezela turista hutsak izan, ezagutu gaitzela, gauza asko daude-eta oraindik ezagutzeko. Eguneratzera anima gaitezen.

Zein erronka ikusten dituzu?

Konbentzitura nago ez dela gauza bera harreman birtuala izatea eta bidaiatzea. Ezagutzeko, harremana behar da. Forma instituzionalak pentsatu behar ditugu elkar ezagutza errazteko, beste denbora batzuekin, ez turismoaren presa eta irensteko nahiarekin.

